

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

atzerritar emakumeak Euskal Herrian

Martxoak 8**www.zizurkil.com**

Aurrera Plaza 3 | 20159 ZIZURKIL | 943 692495

martxoa 2011 | 89. zenbakia | NEGUA

Zizurkilgo Euskara Biziberritze Plana 2009-2012

GAZTERIA:

2011-03-12: GAZTEENTZAKO ESKI IRTEERA: Villabona eta Zizurkilgo Udalek antolaturik, 1991-1998 urte bitartean jaiotako gazteei zuzenduriko eski irteera Luz Ardidenera. Prezioa: 25 euro adin txikikoentzat eta 35 euro adinez nagusientzat. Izen emateak: Aurrera Plazako Udal Bulegoetan, hurrengoak ekarriz:

- NA-ren fotokopia.
- Dirua (25 € adin-txikikoe eta 18 urtetik gorakoek 35€)
- Baimen orria beteta eta gurasoek sinatuta.



Zatoz gazte
Gaztezulora!

GAZTEZULOKO EKINTZAK:

Zure zain gaude hamaika ekintza desberdinekin!

- **2011-03-03, 09, 10 eta 16:** Muralak margotzea.
- **2011-03-04:** Inauteriak.
- **2011-03-30 eta 31:** Euskal dantzen ikastaroa.
- **2011-03-11, 18 eta 25:** Kirol Liga

KIROLA:

2011-03-13: VIII. AIZTONDO KLASIKOA: Adunatik abiatu eta Villabonara iritsiko da.

KULTURA:

INAUTERIAK:

2011-03-04: INAUTERIETAKO DESFILEA, Pedro M^a Otaño. San Millan eskola eta Jesusen Bihotza Ikastolaren eskutik. Ikastetxeetako haurrak Pagamuño Plazan bilduko dira eta 15:30ean hasiera emango zaio desfileari. Herrian zehar ibili ondoren, Pesus Plazan emanaldia egingo dute eta ondoren merienda.



EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA:

2011-03-09: 19:00etan Atxulondo Kultur Etxean Eskulan eta patchworkeko taldeen erakusketaren inaugurazioa.

2011-03-10: Atzerritik Euskal Herrira: Nola bizi dira atzerritar emakumeak Euskal Herrian?

Hizlariak:

- Silvia Carrizo, Malen Etxea Elkarteko kidea.
- Fatima Nciri, SOS Arrazakeriaren kolaboratzailea.
- Lucie Valentine, Biltzen Elkarteko kidea.
- Inés Mamani Castro, Mujeres del mundo Taldeko Lehendakaria.
- Oihana Lopetegi, Bilgune Feministako kidea.

Moderatzailea: Maider Eizmendi (Kazetaria)



2011-03-12: ZESTOA (Gipuzkoa) **EKAINBERRI KOBAK** ikustera irteera egingo da. Ondoren, bazkaria Zumaiako Marina Berri Jatetxean. Izen emateak Aurrera Plazako Bulegoetan eta Liburutegian, plazak bete arte eta 28 euro ordainduz.



ZIZURKILGO IX. ANTZERKI ASTEA:

2011-03-28: IPUIN BATEN GERIZPEAN (Txalo Produksioak):

Bi emanaldi antolatuko dira Atxulondo Kultur Etxean 6-12 urteko herriko ikasleentzat.

2011-03-31: 3, 2, ZAST... EGIZU JOLAS (Lanku):

3-6 urteko herriko haurrentzat antzezlanak Atxulondo Kultur Etxean.

2011-04-01: BAGINAREN BAKARRIZKETAK (Txalo Produksioak):

Atxulondo Kultur Etxean 20:00etan. Sarrera: 3 euro.

2011-04-02: OLIMPYKAS 2012 (Hortzmuga): Kale Antzerkia 18:00etan Pesus Plazan (eguraldi txarra izanez gero, Zizurkil Goiko Intxaur Frontoian egingo da).

ZATOK KALEAN ANTZERKIAZ GOZATZERA!



KZ GUNEA: Tutoritzak martxoaren 10 eta 24an egingo dira 16:00etatik 20:00etara.

BESTELAKOAK:

2011-03-12: TXAPEL EGUNA. Aurtengoan Txapela Lesmes Mujikari ("Iruña") emango zaio.